
GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
M A S T E R A M A I E R A K O L A N A
IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN

I . L I B U R U A : L A B U R P E N M E M O R I A

LABURPEN MEMORIA

I SARRERA

2 TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

3 HASIERAKO DATUAK

4 EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

5 PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

6 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

I SARRERA

_ZER

Hurrengo Master Amaierako Lan honetan Millars ibaiertzean kokatzen den gazteentzako udalekua aurkezten da, 25.000 m²ko ibaiertzeko eremu berde batean kokatzen dena eta urte guztian zehar erabili ahal izango diren ekipamenduez hornituta egongo dena.

_NON

Eskuhartze eremua Almassora eta Vila-real herrien artean kokatzen da, Castellon hegoaldean. Lekuaren berezitasun nagusia Millars ibaiaren presentzia izango da, kontutan hartuta ura izango duen ubidea leku honetan bukatzen delarik.

_ZERGATIK

Proiektua bi herrien arteko aldenduriko leku degradatu batean kokatzen da, baina ibaiertz batek suposatzen duen onura aprobetxatuz eta ingurugiroak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatuz naturari eta topografiari integratuko zaion proiektu bat planteatzen da. Helburua ez da soilik uda eta oporraldietan erabili-ko den gazte eta umeentzako udaleku bat porposatzea, baizik eta urte guztian zehar bai bisitarientzako eta Vila-real eta Almassorako herritarrentzako erabilera bat izango duen gune bat sortzea baizik.

LABURPEN MEMORIA

1 SARRERA

2 TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

3 HASIERAKO DATUAK

4 EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

5 PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

6 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA


7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA



2_TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

KOKAPENA

Gure proiektuaren eremua Almassora eta Vila-real herrien artean kokatzen da, Castelloko probintzian, eta zehazki Almassorako udalerrriaren barnean, nahiz eta bi herrien erdiguneak antzeko distantziara kokatu. Aipatzekoa da Castellonen kokatuta dagoen itsas portu handia, eta Castello de la plana 8 km-ra kokatzen dela gure eremua, beraz esan daiteke toki estrategiko batean gaudela kokatuta, bai AP-7 autobidea eta renfe trenbidea ere minutu gutxira baiditugu. Industria eta laranjazko ortuak ugariak diren espazio kontzentratu honetan kokatzen da Millars ibaia, bai eta bere 424,65 hektareako paisaia babestua osatzen duen ibaiaren bokalea ere. Bere hedapenak ibaiaren azken 16 kilometroak hartzen ditu eta muga honetan zehazki kokatzen da gure ibaiertzeko eremua.



LURRALDEKO ELEMENTU BEREZIAK_MILLARS IBAIAREN BAITAN

Millars ibaia Castelloneko probintziako ibairik garrantzitsuenak da, bai luzeran eta bai ur emarian. Bere jaiotza Terueleko probintzian kokatzen da.

Mijars bokaleko Babesturiko Paisaiak uraren presentzia aldakorrak eta bere geomorfologiak baldintzatzen dituen habitat handia barneratzen du. Hala, paisai mota ezberdinak tartekatuko dira ibaiaren ibilbide osoan zehar; pareta altu artean iragaten diren ibai tartearak, ibilbide ireki eta aldizkako ur emaria izango dutenak, araztegien ekarpenaren ondorioz etengabeko emaria izango duten ibai tartearak eta laguna litoralaren agerpenak ibaiaren azken tartean.

Ibaiaren bokalea LICen eta natura 2000 sarearen barnean dago eta 2005. urtetik aurrera Paisaia Babestu deklaratu zen Valentziako Generalitatearen Consellean.



Esan bezala Millars ibaiak mila aukera, toki, espazio berezi eskaintzen dizkigu bere ibilbidean zehar bere bokaleko hondartzetara heldu arte. Siharreko urtegitik hasita erdi aro garaitik bertako ortuak ureztatzeko kanal eta presa historikoak ditugu ezaugarri nagusienak ibaiaren bidean zehar. Hala, eraikuntza hidraulikoen presentzia nabaria dugu uneoro.

ONDARE HIDRAULIKOA

Millars ibaiko bokalearen Paisaia Babestuak ondare hidrauliko nabari eta aberatsa dauka, inguruko herrien arteko bizikidetzan borondate kolektiboaren eredu gisa dena, Millarseko ura banatuz eta aprobetxatuz; hala, errota, "assud" (presa) eta kanal ugari nabarmenak dira. Paisaian ageri den lurzorua lur gaztea da, hau da, gutxi garatuak izan diren lurak dira, eta gaitasun agrologiko ezberdinak dituzte kokatzen diren ibai tartearen arabera. Lurraldearen erabilerara lotuta dagoen mehatxu nagusia laborantzarekin lotuta dago, batez ere uholdeak gertatu daitezkeen lautadako eta deltaren guneko zonalde sensibleenetan, maila freatikoen gertutasunak uraren kontaminazio arriskua areagotzen baitu.

Ureztapenerako aprobetxamendua oso garrantzitsua da, 43.530 hektarea direlarik ibaiko ur hauek jasoko dituztenak. Energia elektrikoa sortzeko sare elektriko bat ere existitzen da, ibaiaren ibilbide hasieratik hainbat zentral elektriko topatuz.

Uholdegarritasunaren aldetik esan behar da Millars ibaiaren bokalea bereziki zonalde ahula kontsideratu behar dugula uholdeen aurrean. Nahiz eta ibaiko bidean aurkitzen diren lurrezko dikeen eraginkortasuna nulua izan ibai goraldi batean, ibaiaren ibilgua nahiko zabala da bere bokalearen konoan, bai bere tamainagatik eta arinago dauden presen existentziengatik. Hala ere, bokalean bakarrik izango dugu uholdegarritasun arrisku altua.



Vila-realeko presa



Castelló-Almassorako presa



Borrianako presa historikoa



"La Casa de Les Reixes"



"El Secanet"



Ibaiaren bokalea Mediterraneoan

INGURUKO IBILBIDE INTERESGARRIAK

Gure esku hartze eremuan lurraldean kokatzen diren bi ibilbide garrantzitsuek proiektuaren ardatz nagusienera bat nabarmenduko dute

Alde batetik, Calduch Ibilbide Botanikoa dugu, 4 kmtako ibilbidea, Vila-realeko presan hasi eta Santa Quiteria erdi aroko zubian bukatzen dena. Itzal eta kanal artean doan ibilbide atsegin hau oso aproposa da adin guztietako pertsonentzako eta Santa Quiteria elizan hasten den Millars bokalearen ibilbidearekin lotzeko aukera ematen digu.

Bestalde, Millars ibaiaren bokalearen ibilbidea dugu, esan bezala, Santa Quiteria elizan hasi eta Mediterraneoko kostaraino heltzen dena, ibaiaren erriberatik 21 kilometrotako ibilbide bat osatuz. Gure esku hartze eremutik oso minutu gutxira kokatzen da ere Almassora-Castelloko presa, zonaldeko azpiegitura nabarmenetako bat. Eraikuntza honek, beste presekin batera paisaiaren ikuspegia aldatzea lortu du baina batez ere, inguruko ortuetako ureztatze sistema hobetzea lortu zuen bere garaian. Hala, ibilbide hau oso aproposa da bai zaldiz, oinez edo bizikletaz egiteko, bidean zehar behatoki eta atsedun gune ezberdinak topatuz. Bidean gizakiak ura depuratzeko sortu zituen laguna artifizialak aurkituko ditugu, non egun mikro klima eta fauna bereziak sortu diren inguruari interes berezi bat emanez. Kostarantz hurbiltzen goazen heinean gunearen inguru politenera hurbiltzen goaz; begetazioa hostotsuagoa joango da egiten itzal guneak sortuz eta eraikuntzen presentzia ere gutxituz joango da, paisaia naturalago batez disfrutatuta ahalko dugularik.



L'Ermite errota




Calduch ibilbidea



Bisbal errota




Terraet errota



Serrano errota



Ura eta itzala



Assud Almassora-Castelló presa



Mijars bokalearen ibilbidea



Behatokia ibilbidean zehar



Laguna artifizialak



Kostara gerturatuz




PASEATU



1 CALDUCH IBILBIDE BOTANIKOA

4 KM
33 MIN
15 MIN



2 MIJARS BOKALEAREN IBILBIDEA

9,5 KM
1H 57 MIN
31 MIN



LASAITU



SANTA QUITERIA
IBAIERTZERO PINUDIA

0 KM



EZAGUTU



ALMASSORA HERRIGUNEA

4 KM
41 MIN
13 MIN



VILA-REAL HERRIGUNEA

2,3 KM
28 MIN
9 MIN



ERAKUNTZA HIDRAULIKO HISTORIKOAK

IKASI



ALMASSORAKO ARAZTEGIA

4,9 KM
60 MIN
17 MIN



ORTUAK




DISFRUTATU



MARISMAK
LAGUNA ARTIFIZIALEK
ALMASSORAKO HONDARTZAK

9,5 KM
1H 57 MIN
31 MIN



LABURPEN MEMORIA

1 SARRERA

2 TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

3 HASIERAKO DATUAK

4 EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

5 PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

6 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

3_HASIERAKO DATUAK

TOPOGRAFIA

Gure eremuko berezitasunik nagusiena kota diferentzia izango da, 15 metroko kota diferentzia baitago errepide nagusitik ibaiertzeko kotaraino. Beheko plataformara iristeko bi bide daude soilik; Santa quiteria elizaren parean dauden harrizko eskilara monumental batzuk eta beste aldean, lurzoruari egokitutako pabimentatu gabeko aldapa ez irisgarri bat.

Inguruko eraikuntza nabarmenak:

A_Santa quiteria eliza (1683)

B_Santa Quiteriako erdi aroko zubia (XIII.mendea): 1275.urte inguruko zubi erromatarra da; zubi tipologia honek oso erreferentzia gutxi ditu Espainian.

D_Santa Quiteriako presa (1983): Presa honek Almassora, Castello, nules eta Borrianako laranjondoak ureztatze-ko ura bildu eta erregulatzen du.

E_El Terraet errota (1865): Ibaiaren bestaldean kokatuta dago; erdi eraitsia dago eta tamalez ez oso ondo kontserbatua. Gure eskuhartzearen barne sartuko da errotaren birgaitzea.


F_Assud Almassora-Castello (1885): Lehen aipatu bezala assudak ur emari baten maila igotzeko eta kanaletara bideratzeko eraiki ziren jatorri musulmaneko presa txikiak dira -"sequia" edo kanalekin batera mediterraneoko sistema tradizionala da (ortuak ureztatze-ko eta bai errotak, harraskak eta askak hornitzeko erabiltzen ziren).

G_Almasorako udal igerilekuak: Gaur egun itxita dauden eta zaharkiturik dauden igerileku batzuen presentzia daukagu gure eremuko kotaren maila gorenean


Esan daiteke gure esku-hartze eremua ibaiaren ibilguaren tramo zentral batean kokatzen dela eta bai Vila-real eta Almassorako araztegiei esker uraren presentzia izango dugu urte guztian zehar. Gertakari honek paisaia unitate hau besteengandik bereizten du ur emaria etengabea izango delako uneoro. Bestalde, zonalde honen gaur egungo egoera, batez ere Vila-realeko biztanleentzako aisialdirako eta lasaitasunerako espazio tradizional bat dela da, kontutan hartuz ibaiaren parean industria poligonoz beteta dagoela Vila-real herrigunerainoko tartea. Hala bi herrientzako balio altuko gune bat da, bertan kokatzen diren erabilera publikoko espazioengatik.


ESKUHARTZE EREMUA





- A_Santa quiteria eliza (1683)
- B_Santa Quiteriako erdi aroko zubia (XIII.mendea)
- D_Santa Quiteriako presa (1983)
- E_El Terraet errota (1865)
- F_Assud Almassora-Castello (1885)
- G_Almasorako udal igerilekuak





GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
MASTERAMAIERAKOLANA
IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN

UHDGARRITASUNA

Arestian aipatu bezala gure eskuhartze eremuan uholdegarritasun maila baxua izango da. Nahiz eta ibaiko bidean aurkitzen diren lurrezko dikeen eraginkortasuna nulua izan ibai goraldi batean, ibaiaren ibilgua nahiko zabala da bere bokalearen konoan, bai bere tamainagatik eta arinago dauden presen existentziagatik.





BEGETAZIOA

Lekuaren alde positiboetako bat bertan aurkitzen diren begetazio espezie ugariak ditugu, hots, mediterraneoko begetazio tipikoarekin bat egiten dutenak. Goiko plataforma aldetik hasiz erriberako basoa dugu nabaria; zuhaixka masa dentsu moduan ageri dira errepide aldean, non makal zuria eta sahats zuria nagusi diren; hauekin batera kokatzen dira zonalde honetan alepo pinuak eta pinazi pinuak ere; espezie hauek ez dira erriberako basoan ohikoak baina landare mediterraneoekin bat egiten dute euren agerpena hemen. Ibaialderuntz gerturatuz beste hainbat espezie agertuko zaizkigu; adibidez, heriotzorriak, olivardak eta kanabera (arundo donax) bezalako espezie ezberdinak. Landare mota hauek lehorte luzeak jasateko gaitasuna dute eta uretatik gertu ageri dira gehienbat. Aipagarriena alderdi honetan kanabera espezie inbasore bat dela eta hau elimintzeko helburua dute begetazio autoktono bat inplantatzeko asmotan.

Lezkadia ere uretan topatuko dugun espezie mota bat izango dugu, non ibaiaren bokale guztian ere nabaria izango dugun bere presentzia; hauek heterogeneotasun begetala gehitzen dute eta bertako hegaztien habitata garatzeko oso garrantzitsuak dira.

Calduch ibilbide botanikoan komunitate psamofiloak kokatzen dira, euren ahultasun eta berezitasunarengatik nabarmentzen direnak eta nahiz eta euren presentzia eskasa izan, naturalitate handiko eta babestu beharreko landareak dira.







1. EBAKETA



2. EBAKETA



3. EBAKETA



GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
 MASTERAMAIERAKOLANA
 IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
 DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN

LABURPEN MEMORIA

1 SARRERA

2 TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

3 HASIERAKO DATUAK

4 EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

5 PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

6 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

4_EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA ARAUDIA

Hirigintzako araudiaren aldetik esan dezakegu gure eremua zuzkidura publikorako lurzoru ez urbanizagarri baten barnean sartzen dela, zehazki "Parque publico" definizioaren baitan. Hala, Almassora udalerriko Plan Orokorrak udalerriko lurzoru zati hau zerbitzu publikoetarako eraikinetarako erreserbatzen duela adierazten du, zerbitzu publikoak pribatuak ala publikoak izan ahal direlarik. Almassorako 1998ko Plan Orokorren baitan aipatzen dena:

"NUR. PPU.- Suelo no urbanizable destinado al esparcimiento y ocio. Tendrá un tratamiento ajardinado, con un grado de urbanización bajo, que le permita configurarse como parque. Su uso será compatible con el deportivo si se desarrolla al aire libre. Asimismo serán compatibles usos que se puedan justificar por su estratégica ubicación y por su interés social o cultural, en instalaciones de dotación pública"


La clasificación, con especificación de la sujeción o no a especial protección, y en su caso, calificación del suelo no urbanizable vinculan los terrenos a los correspondientes destinos y usos y definen la función social de la propiedad de los mismos, delimitando el contenido de este derecho.

• Las facultades y deberes de los propietarios de suelo no urbanizable común y sujeto a especial protección vienen definidos en la Ley de la Generalitat Valenciana 4/1.992, de 5 de Junio, con modificación 2/1.997 de 13 de Junio y la Ley estatal 19/1995 de 4 de Julio.

• En aquellos supuestos contemplados en la legislación de impacto ambiental, la implantación de usos, actividades y aprovechamientos en suelo no urbanizable exigirá también la previa Declaración o Estimación de Impacto Ambiental.

En esta clase de suelo se permiten los siguientes usos y actividades:

1. Obras e instalaciones requeridas por las infraestructuras y los servicios públicos estatales, autonómicos o locales, que precisen localizarse en terrenos de dicha clase, siguiendo el procedimiento previsto en el artículo 7 de la Ley 4/1.992, de 5 de Junio, de la Generalitat Valenciana, sobre suelo no urbanizable.



LABURPEN MEMORIA

1 SARRERA

2 TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

3 HASIERAKO DATUAK

4 EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

5 PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

6 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

5_PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

PROGRAMA

Eremu honetan proposatzen den proiektua gazte eta umeentzako udaleku bat da. Baina udaleku hitzak berak esaten duenez "uda-lekuaren" eskema apurtu nahi da eta helburu nagusia, udalekuetako umeez gain, bai bertako herritarrek eta bertatik pasako diren bisitariek disfrutatu ahalko dituzten espazio ezberdinak sortzea da. Ez udako urtarorako bakarrik baizik, urteko 365 egunetarako. Hala, eremuko topografian integratuko diren espazio ezberdinen klasifikazioa proposatzen da pribatutasunaren arabera. Hurrengo da proposaturiko programa:

Espazio publikoak (publiko osoarentzako)

- _Kafetegia terrazarekin
- _Turismo info gunea
- _Aldagelak
- _Komunak
- _Igerileku naturala



Espazio erdi publikoak (udalekuen zerbitzuetarako+urtean zehar herritarren erabiletarako)

- _Tailerrak
- _Jangela
- _Sukaldea

Espazio pribatuak (udalekuen zerbitzuetarako)



- _Logelak
- _Komunak

Hala, programa gure eremuan ahalik eta hobekien integratzeko bere sendotasun eta ahultasun guztiak irakurtzen saiatu gara datozen ondorioak atera ditugularik.



TOKIAREN ANALISIAREN ONDORIOAK


Programa gure eremuan ahalik eta hobekien integratzeko bere sendotasun eta ahultasun guztiak irakurtzen saiatu gara datozen ondorioak atera ditugularik.



IDEIAREN GARAPENA


Programa gure eremuan ahalik eta hobekien integratzeko bere sendotasun eta ahultasun guztiak irakurtzen saiatu gara datozen ondorioak atera ditugarik.

01




GAUR EGUNGO EGOERAN ERALDAKETAK:
IGERILEKUA ERAITSI+
IBAIONDORAKO SARBIDEA DEN MALDA GOGORRA ERALDATU

02




PROPOSAMENA:
IBILBIDE BERDEAK LOTU+
BIDE IRISGARRI BAT EGIN %6

03




PROPOSAMENA:
IBILBIDEAN ZEHAR AGERTUKO DIREN BLOKEEN EZARPENA

04



PROPOSAMENA:
IZAERA PRIBATUZKO 2.MAILAKO BIDEKAK BLOKEETARA SARTZEKO

05




PROPOSAMENA:
JARDUERA EZBERDINAK ESKU HARTZE EREMU OSOAN ZEHAR

PROPOSAMENA

Esan bezala, espazio hauek eremuko topografian kokatzen joango dira, kota altuenean espazio publikoak kokatuko direlarik eta ibaitik gertuen dagoen eremuan espazio pribatuak egongo direlarik.

Bertako irisgarritasuna hobetu nahian bide sare berri bat proposatuko da beheko eta goiko loturak hobeto ezartzeko.

Honekin batera oinezkoen zubi baten sorrera planteatuko da bertan hasi eta bukatzen diren ibilbide botanikoa eta Mijars bokalera doan ibilbidea batu ahal izateko, hots, bide hau ere gure proiektuaren barne izateko. Hau guztia aurrera eramateko eta bertako topografiako bideek barandal baten beharra suertatzen dutenez, zurezko barandal jarrai baten proposamena egiten da ibilbide guztian zehar, tarte batzuetan eustorma bezala funtzionatu dutelarik. Hala, bide nagusi honen baitan joango dira agertzen gure eraikinak, zurezko fatxadadunak, paisaiaren eta naturaren hierarkia horri jarraitzeko asmoz. Hala, eraikin ezberdinak bai lurzorura eta ibilbideetara egokituko dira eta goiko kota eta beheko kotaren arteko bidean goazenean "agertzen" joango zaizkigun elementuak izango ditugu. Bide gure bolumenetara egokituko da eta espazio guztietara sarbide bikoitzak izango ditugu bai goiko eta azpiko kotetatik, sarrera guztiak guztiz irisgarriak izanik.



PROGRAMA BOLUMENEZ BOLUMEN

Turismo bulegoa/jangela/kafetegia

KAFETEGIA
85,70 M²

KOMUN PUBLIKOAK
19,05 M²

TURISMO BULEGOA
107,75 M²

Logelak

TERRAZA
59,65 M²

JANGELA
124,80 M²

TERRAZA
46,20 M²

LOGELA 1_10 OHE
39,13 M²

LOGELA 2_10 OHE
39,13 M²

INSTALAZIOETARAKO TERRAZA
52,40 M²

Tailerrak

NATURA GELA I
122,65 M²

INSTALAZIO GELA
6 M²

KOMUNAK
20,90 M²

NATURA GELA II
95,31 M²

LOGELA 3_10 OHE
39,13 M²

INSTALAZIO GELA

LOGELA 4_10 OHE
38,90 M²

LOGELA 5_8 OHE_BEGIRALEEN LOGELA
391,10 M²

LABURPEN MEMORIA

1 SARRERA

2 TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

3 HASIERAKO DATUAK

4 EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

5 PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

6 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA



① ESPAZIO ZENTRALA: BAFETEGIA, JANGELA, ALDAGELA PUBLIKOAK, INFO GUNEA

TALLERRAK ②


③ LOGELAK

④ IGERILEKUA

⑤ BEHATOKIA





MILLARS IBAIA





BIDEAK ETA MATERIALTASUN EZBERDINAK



- 
BUZTINEZKO LUR
KONPAKTATUA
- 
ZURA
- 
BIDE ASFALTATUA
- 
HARRIA

NATURAREN PRESENTZIA



- 
ALEPO PINUA

PINAZI PINUA

PINUDIAK


OLIBARRA

ZURU HORTZETAK

MARRI ZURRA

BASO ARGIA


KORONKATE
PARRUPULGAK

YERBERIA

SARAKO ZURU

MARRI BELTZA













HERIZZORRIA


SIFONIA

MARRI BELTZA


ERRIBERAKO BEGETAZIOA



- 
1 TURISMO BILEGGA,
KAFETEGIA, JANGELA

- 
2 TERAZAK
3 ALDAGELAK, IGERILEKUA

- 
4 LOGELAK

- 
5 BEHATOKIA

- 

- 










+39M

③ LOGELAK










AUTOBUSEN
APARKALEKUA
2 PLAZA

AUTOBUSENTZAKO APARKALEKUA
2 PLAZA













+59M






GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
MASTERAMAIERAKOLANA
IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN









+56.00m
+55.00m
+54.00m
+53.00m
+52.00m
+51.00m
+50.00m
+49.00m
+48.00m
+47.00m
+46.00m
+45.00m





GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
MASTERAMAIERAKOLANA
IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN











GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
MASTERAMAIERAKOLANA
IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN




+53.00m
+52.00m
+51.00m
+50.00m
+49.00m
+48.00m
+47.00m
+46.00m












GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
M A S T E R A M A I E R A K O L A N A
IKASLEA: J O N E C A S T E L L S A R R I Z A B A L A G A
D A G E T 2 0 1 6 / 1 7 Z U Z E N D A R I A : J O N B E G I R I S T A I N














EBAKETA OROKORRA LOGELATIK_I:200




EBAKETA OROKORRA JANGELATIK_I:200





GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
 MASTERAMAIERAKOLANA
 IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
 DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN








+53.00m ---
+52.00m ---
+51.00m ---
+50.00m ---
+49.00m ---
+48.00m ---
+47.00m ---
+46.00m ---
+45.00m ---
+44.00m ---
+43.00m ---
+42.00m ---
+41.00m ---
+40.00m ---
+39.00m ---
+38.00m ---
+37.00m ---
+36.00m ---
+35.00m ---








GAZTEENTZAKO UDALEKUA MILLARS IBAIERTZEAN
MASTER MAIERAKOLANA
IKASLEA: JONE CASTELLS ARRIZABALAGA
DAGET 2016/17 ZUZENDARIA: JON BEGIRISTAIN































LABURPEN MEMORIA

1 SARRERA

2 TESTUINGURU GEOGRAFIKOA

3 HASIERAKO DATUAK

4 EZARRI BEHARREKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

5 PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

6 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

7 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

ERAIKUNTZA/ EGITURA

Oso zaindu beharreko aspektua izanik, eraikuntzaren helburu nagusia inguarekiko zentzudunak diren materialak eta eraikuntza sistemak erabiltzea izan da. Modu honetan, proiektuan naturaren presentziari garrantzia eman nahi izan zaio bertako landaredia zein ibaiarekin integratuz.

Proiektuak bere osotasunean bolumen ezberdinak hartzen ditu bere gain; hala, eraikuntza ebazpideak bolumen guztietan berdinak izango dira, baina eskuhartze eremua maldan dagoenez, honek bolumen bakoitzean sistema ezberdin bat erabiltzea ekarriko du malda honeri erantzun egoki bat emanez.

Eskala ezberdineko proiektua garatu da; alde batetik eskuhartze eremu osoa hartzen duen paisagintza lan bat garatu da materialtasun ezberdinak erabiliz erabileraren arabera publikotasunaren arabera.

Bestetik, eraikinaren eskalako proiektua garatu da, hurrengo eraikuntza ezaugarriak izango dituztelarik amankomunean:

- **Zurezko sistema bateratua: egitura + itxitura+ forjatuak**

Esku artean ditugun bolumen txikiak direla eta bi egitura sistema proposatu dira: batetik, agerian egongo den zur laminatuzko habe zutabe sistema eraikint handienetarako; eta bestetik, zurezko CLT panelak eraikin txikienerako. Zurak hainbat abantaila eskaintzen ditu: barne espazioetako berotasuna, konforta, bizi kalitatea, naturara itzultzearen sententzia...Lurzoruan egitura hau asentatzeko eta egun daukagun malda handiari erantzun bat emateko zurezko solairu bat altxatzea proposatzen da; solairu hau hormigoizko zutabe eta erriostira inguratzaile baten bidez eutsiko da. Egiturak eta itxiturak elkarrekin lan egin dezaten materialen batasun bat eman nahi izan da; hala, itxituren CLT panelek egitura eusteko balioko dute zutabe artean ezarrita joango delarik. CLT panel honeri isolamendu termikoa itsatsiko zaio eta honen gainean zurezko listoi horizontalak ezarriko zaio akabera moduan, arrastrelamendu bikoitz batekin fatxada aireztatuta egon dadin. Erabilera publikoko barne akaberak ere zurezko listoiak izango dira.

- **Estalki begetala**

Estalki mota hau hautatu da arrazoi ezberdinetatik: isolamendu termikoa optimizatzen du, euri urak batzen ditu, estalkiaren erabilera bizitza luzatzen du, inertzia termiko handia du, bere aspektua naturala eta erakargarria da...baina batez ere bere mantenua minimoa da eta Valentzia den lurralde hain berotsu batean udan temperatura beroak gehigo erregulatuko ditu estalki konbentzional baten aurrean. Estalki begetalare erabilerak euren gainazal osoan beroaren xurgapen handiago bat ekarriko du eta bestetik, eguzki erradiazioaren reflexio gaitasun handiagoaz gain, euren gainazaleko airea hozten lagunduko dute.

- **Beirateak**

Beirateei dagokienez, hauek aluminiozkoak proposatu dira. Leihoak finkoak eta beste batzuk irekigarriak izango dira, 8/20/8 beira bikotzdundak izanik guztiak. Horretaz gain, eguzki kontrola eta akustikoa ("control glass") edukiko dute eta emisitate baxukoak izango dira. Eraikin guztien orientazioa hegoaldea denez, beira hauek babes elementuak izango dituzte; alde batetik, beirate handietan fatxadako CLT paneletan eutsiko den zurezko markesina bat ezarriko da, eta aldiz leiho txikienetan pertsiana abatiblezko zurezko azpiegitura bat ezarriko da fatxada kanpoaldean.

- **Akaberak eta erremateak**

Publikoari zuzendutako espazioen akaberak zurezko listoiak izango dira; aldiz, espazio pribatuetan igeltsu plakazko akaberak kokatzen dira.

Barne espazioak kanpoaldearekiko trantzizio elementu gisa beirazko barandilak proposatzen dira.

INSTALAKUNTZAK

Proiektuaren oinarria bolumen ezberdinetan oinarritzen da, eta multzoka antolatu dira instalazioak garatzeko. Honako eran antolatu dira bolumen ezberdinak instalazio ezberdinak era zentralizatu batean garatzeko.

- A BOLUMENA: Turismo bulegoa
- B BOLUMENAK: Kafetegia+ Jangela
- D+E BOLUMENAK: Tailerrak
- F+G BOLUMENAK: Logelak

Proiektua Almassoran, Castelloneno probintzian kokatzen da; bertan klima mediterranearra izango dugu, hau da tenperatura epelak neguan eta oso altuak neguan, beraz udako temperatura altuen aurrean babes egokia ezarri beharko dugu gure proiektuan, kontutan hartuta ere eraikinak hegoaldera daudela orientatuta.


Hauek dira Almassorako parametro nagusiak:

- **Latitud (grados): 39.95 grados**
- **Altitud sobre el nivel del mar: 30 m**
- **Percentil para verano: 5.0 %**
- **Temperatura seca verano: 29.87 °C**
- **Temperatura húmeda verano: 22.70 °C**
- **Oscilación media diaria: 10.8 °C**
- **Oscilación media anual: 32 °C**
- **Percentil para invierno: 97.5 %**
- **Temperatura seca en invierno: 2.50 °C**
- **Humedad relativa en invierno: 90 %**
- **Velocidad del viento: 6.3 m/s**
- **Temperatura del terreno: 6.83 °C**
- **Porcentaje de mayoración por la orientación N: 20 %**
- **Porcentaje de mayoración por la orientación S: 0 %**
- **Porcentaje de mayoración por la orientación E: 10 %**
- **Porcentaje de mayoración por la orientación O: 10 %**
- **Suplemento de intermitencia para calefacción: 5 %**
- **Porcentaje de cargas debido a la propia instalación: 3 %**
- **Porcentaje de mayoración de cargas (Invierno): 0 %**
- **Porcentaje de mayoración de cargas (Verano): 0 %**

Proiektuaren erabilera datak hurrengoak izango dira:

- Turismo bulegoa- Kafetegia = urte guztian irekita
- Jangela- Tailerrak- Logelak= urritik ekainera asteburuetan ekainetik irailerarte egunero

Hortaz, honen arabera sistema ezberdinak planteatu dira bolumen bakoitzerako euren erabilera eta funtzio eta okupazioaren arabera.



BERO PONPA GEOTERMIKOA

Klimatizazioari dagokionez, energia iturri nagusi gisa geotermia erabiltzea proposatzen da. Proiektuaren esku-hartzeak bere gain duen azalera handia aprobetxatu nahi da energia iturri alternativo, ekologiko eta jasangarri bat lortzeko lurzoruaren berotasunaz baliatuz. Hala, ura-ura bidezko bonba geotermikoak planteatuko ditugu bolumen ezberdinetan, kasu bakoitzean emisore ezberdinak baliatuz errefrigerazio eta berokuntza sistema mixto bat hornitzeko. Hala, sistema ezberdinak planteatzen dira bolumen ezberdinetarako:

BOLUMENAK	KLIMATIZAZIORAKO UNITATE ZENTRALA	ELEMENTU TERMINALAK	AIREZTAPENA INDEPENDIENTEA/BATERATUA
Turismo bulegoa-Kafetegia-Jangela A/B	Ponpa geotermiko itzulgarria	Fancoilak	BATERATUA
Tailerrak D/E	Ponpa geotermiko itzulgarria	Fancoilak	INDEPENDIENTEA
Logelak F/G	Ponpa geotermiko itzulgarria	Zoru erradiante/errefrigeratzailea	INDEPENDIENTEA

SUTEEN AURKAKO BABESA

Suteetatik babesteko sistema garatzeko EKT SSaren araudia jarraituz eta eraikinen erabilerari egokitzuz diseinatu da. Suteen aurkako babes sistemak duen erabilerak duen arriskuaren kalkuluak eta suaren babes, control eta itzaltze sistemaz osatuta egongo da.

Eraikin ezberdinak eraiera publikokoak dira, eta jangela ezik, solairu bakarrekoak, beraz, eta euren azalera ahalbidetzen duelako eraikin bakoitzak sektore bat osatuko du. Guztira, 7 sektore ezberdin izango ditugu.

SEKTOREA	AZALERA M2	ERABILERA
1	205,16	Komertziala (Turismo bulegoa)
2	149,13	Konkurrentzia publikoa (Kafetegia)
3	209,41	Konkurrentzia publikoa (Jangela)
4	134,35	Dozentea (Tailerrak)
5	134,35	Dozentea (Tailerrak)
6	148,86	Residentzial publikoa (Logelak)
7	93,65	Residentzial publikoa (Logelak)

EGITURAREN SUAREKIKO ERRESISTENTZIA

SEKTOREA	ERABILERA	EGITURA ELEMENTUEN ERRESISTENTZIA
1	Komertziala	R90
2	Konkurrentzia publikoa	R90
3	Konkurrentzia publikoa	R90
4	Dozentea	R60
5	Dozentea	R60
6	Residentzial publikoa	R60
7	Residentzial publikoa	R60

EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

Efizientzia energetikoaren irizpideak

Proiektuan, diseinu prozesutik, hainbat irizpide izan dira kontutan: hirigintza-eraikuntza zein estetika diseinuak ingurarekin atseginagoak eta orokorrean sostengarriagoak izan daitezzen. Azken finean eraikinak berak inguru natuaralarekin sinbiosia planteatzen lantzen du, lurrraren eta baliabide naturalen ustiapenez.

• Eraikinaren kokatzea:

Eraikinaren kokapena eta antolaketa proiektuaren indartsuenetakoa da. Izan ere eraikina inguru natural batean integratzea izan da helburu nagusia. Hala, ibaiaren kokapenak gure proiektuaren osotasuna hegoaldera orientatuta egotea behartu gaitu. Honek, proiektuaren eraginkortasun energetikoa bermatzeko erabaki sendoak hartzera eraman gaitu bai sistema pasibo eta eraikuntzaren aldetik.

• Eraikuntza

Eraikinen eraikuntzari dagokionez, material erabiliena hormigoi armatua eta zura izan dira. Karga hormak egin beharra ikusi da zura terrenotik altxatzeko eta bertako eraikuntza sistema jarraitzeko eta horretarako hormigoia erabiltzea erabaki da. Gainontzekoa zurezkoa egitea erabaki da, kontuan izanda inguruan dauden baso masak, zentuzkoen erabakia izan da tokian tokiko materialak erabiltzea proiektuaren gauzatzerako. Eraikinen enbolenbetea EGOIN enpresako zurezko panelez gauzatu da, pinuz osatutakoak.

Estalki begetalaren hautaketa: Estalki mota hau hautatu da arrazoi ezberdinenatik: isolamendu termikoa optimizatzen du, euri urak batzen ditu, estalkiaren erabilera bizitza luzatzen du, inertzia termiko handia du, bere aspektua naturala eta erakargarria da...baina batez ere bere mantenua minimoa da eta Valentzia den lurralde hain berotsu batean udan temperatura beroak gehigo erregulatuko ditu estalki konbentzional baten aurrean. Estalki begetalare erabilerak euren gainazal osoan beroaren xurgapen handiago bat ekarriko du eta bestetik, eguzki erradiazioaren reflexio gaitasun handiagoaz gain, euren gainazaleko airea hozten lagunduko dute. Hala, hegoaldearen orientazioarekiko lama bidezko estaldurak proposatzen dira markesina bidez eta leihoetarako persiana bidez.

• Argiztapena

Kasu gehienetan LED motako luminariak erabili dira, hauek duten iraupen eta kotsumo baxuagatik.

• Saneamendua

15 metroko kota diferentzia egoteak logelen eta tailerren saneamenduan euri urak eta ur beltzak ditugun erre- kutsoetatik baliatuz erregeneratzea lortzen da, sare orokorrera ponpatu baino., Hala, euri urak depositu batean batuko dira udalekuan ur hori erabiltzeko eta ur beltzak filtratu eta iragaztu ondoren ibaira isuriko dira lur iragazpenari bitartez.

• Geotermia:

Klimatizazioari dagokionez, energia iturri nagusi gisa geotermia erabiltzea proposatzen da. Proiektuaren esku- hartzeak bere gain duen azalera handia aprobetxatu nahi da energia iturri alternativo, ekologiko eta jasangarri bat lortzeko lurzoruaren berotasunaz baliatuz. Hala, ura-ura bidezko bonba geotermikoak planteatuko ditugu bo- lumen ezberdinetan, kasu bakoitzean emisore ezberdinak baliatuz errefrigerazio eta berokuntza sistema mixto bat hornitzeko.

Bolumen guztien ziurtagiri energetikoak LIDER-CALENERren HULC herra mintza unifikatuarekin lortu dira.